

Udal talde politikoaren iritzia



GETXO, MUGIKORTASUN JASANGARRIA ERREFERENTE GISA

Eusko Alderdi Jeltzaleak Getxoko emakume eta gizonekin duen konpromisoaren ezaugarriak dira mugikortasuna eta jasangarritasuna. Gure herrikideak entzuteko prozesu zabal bat egin ostean, Getxoko EAJren hauteskunde-programan idatzi dugu. Amaia Agirre Muñoa buru duen talde osoa aritu gara hura banatzen eta azaltzen. Eta betetzen ari gara, duela zenbait urte Getxon hasi genuen proiektuari jarraipena emanaz; hala, ekimen berriak ezarri ditugu.



Mugikortasuna, segurtasunarekin eta jasangarritasunarekin batera, EAJren ardatz estrategikoetako bat da, halaxe baita getxoztarrentzat. Gure politiken erdigunean pertsonak, segurtasuna eta jasangarritasuna daudela erakusteko adibide argia dugu Areetako Kale Nagusiaren eraberritzea eta horren zati bat oinezkoentzat egitea, bai eta horren in-

terresgarria dago orain. guria ere. Halaber, Zugatzarte etorbidea askoz atseginagoa eta seguruagoa egin da, eta ingurumenaren aldetik jasangarriagoa, zero emisio lortzeko. Jakina, nabarmendu behar dugu ere Makaleta berregituratu dela Fudurako biribilguneen eta Zubietaren artean; hala, adierazita-koaz gain, bizikleta erabiltzeko ibilbide

interesgarria dago orain.

"Mugikortasun jasangarria eta irisgarritasuna bultzatzeko eremu berriak ditugu; izan ere, udalerrri aitzindaria izan gara eta oraindik ere eredu gara hurbileko herri askorentzat, baita hurbil ez daudenentzat ere". Hori guztia dago jasota gure hauteskun-

de-programan, getxoztarrekin dugun konpromisoa baita.

EAJ-PNV taldeak argi dauka hizpide dugun konpromisoa; beraz, metropoli- an bizikletak mailegatzeko ekimen berriaren programan sartuko da Getxo, BizkaiBizi izenekoan. Horren bitartez, bizikletak mailegatzeko sistema berrantolatuko da, egunero pertsonen fluxuak dituzten hurbileko udalerrien arteko garraioa izateko xedarekin eta, ondorioz, pixkanaka-pixkanaka areagotu dadin joan-etorri horiek bizikletaz egiten dituzten erabiltzaileen kopurua. Aspaldi kimera bat iruditzen zitzaiguna errealitate bihurtu da jada. Ilusio handiarekin sartuko da Getxo BizkaiBizin, eta eskertzen dugu Bizkaiko Foru Al- dundiak eta gertuko udalerriek (Bilbo, Erandio, Leioa, Berango, Barakaldo, Ses- tao, Portugalete eta Santurtziko udalek) egindako erakundearteko lankidetzaz.



AMNISTIARI BURUZKO LEGEAREN AURKA

Duela zenbait egun, milaka espainolekin batera, Madril eta Bartzelonara joan ginen prozesu auzipetuei amnistia onartzearen aurkako manifestazioetan parte hartzeko. Amnistia horrek ez du adiskidetzeari helburu, Gobernuko presidentetza lortzea baizik. Gobernuko presidentetza justiziatik ihes egin duen politikari bati agintean jarraitzearen truke aurkezten dion ordainbidea da amnistia. Ikuspuntu juridikotik legez kanpoko da, zentzugabekeria demokratikoa ikuspuntu politikotik, eta lotsagabekeria ikuspuntu moraletik. Hori guztia dela eta, Getxoko hurrengo

osoko bilkuran mozio bat aurkeztuko dugu amnistia erabat gaitzesten dugula adierazteko eta gainerako alderdiei eskatzeko demokraziaren aurkako eraso horren aurka agertu daitezten. Zoritxarrez, Eusko Alderdi Jeltzaleak, Getxo udalerrian gehiengo duen alderdia izanik, amnistia hori ezkatzen du bere programetan eta arriskuan jartzen ditu bizikidetzaz nahiz Zuzenbidezko Estatua, eta hala defendatzen du inoiz egon den hauteskunde-iruzurrik handiena.

Gure jarrera argia da: amnistiari ez eta autodeterminazioari ez.



KEZKA ARTAZAN IBAI AZPIKO TUNELAREN ONDORIOENGATIK



Artaza eta Ballonti ibai azpiko tunel batekin lotzeko asmoa du Foru Aldundiak, eta horrek kezka sortu du Artaza inguruan bizi diren auzokideen artean, bai Getxon bai Leioan. Proiektua erredakzio fasean dago orain, eta bertan onartzen dutenez, hainbat eragin kaltegarri izan ditzake: Artaza parkearen eta Artaza-Romo Institutuko patioaren zati baten txikizioa; zarata eta kotxeen joan-etorria handitzea; gaur egungo oinezkoentzako pasabideak desagertzea eta abar.

EH Bildutik ere oso kezkatuta gaude proiektu honek gure udalerrian izan

dezakeen ondorioengatik. Tunela Supersurraren bigarren fasearekin lotuta dago (beharrezkoa ez den beste azpiegitura bat), eta auto pribatuaren aldeko apustua egiten du ezbairik gabe. Tunelak 400 milioi euroko aurrekontua izango du (gainkostuak kontuan hartu barik, noski). Gure ustez, mugikortasunean beste lehentasun batzuk ditugu, adibidez, Getxo osoan metroaren ibilbidea lurperatzeko lehenengo urratsak ematea, garraio publikoa indartzea (Parke Teknologikoarekin loturak, aireportua, Leioako kanpua...). Presioa egiten jarraituko dugu. getxo.ehbildu.eus



KULTURA GETXOKO GAZTEEI HURBILTzea

2005ean jaiotako 749 getxoztarrek 400 euroko gazte-kultur bonua eskuratu ahalko dute aurten, liburuetan, zineman, musikan, jaialdietan, operan, antzerkian, bideo-jokoetan, diskoetan eta abarretan inbertitzeko. Pedro Sánchezen Gobernu sozialistak sustatu duen neurria da eta horren helburua da gazteei kultura hurbiltzea. Etorrizunarako inbertsioa da, fidelizazioa bultzatzeko, kultura kontsumitzeko ohiturak sortzen laguntzeko eta gure kultura- nahiz sormen-eskaintzaz gozatzeko duten ikus-entzuleak anitzak eta askotarikoak izateko. Are gehiago Getxon, beti kulturari lotuta egon den udalerria baita

eta horrekiko konpromiso sendoa erakutsi baitu beti.

Zalantzarik gabe, Getxo udalerriko kultur eskaintza zabala eta askotarikoa da, eta adierazitako bonua aukera paregabea da liburuak, diskoak, bideo-jokoak, partiturak, aldizkariak eta prentsa eskaintzen dizkiguten tokiko saltokietan inbertitzeko, bai eta gure kultur ondarea bisitatzeko eta arteaz, zuzeneko ikuskizunetaz eta ikus-entzunezkoetaz gozatzeko ere. Alde horretatik, aipatzekoa da, besteak beste, Muxikebarri eta Romo Kultur Etxeko eskaintza kulturala.



PALESTINAREN ALDE

Gazako herritar zibilen aurkako bonbardaketa eta sarraskia gelditu behar da. Nahikoa da, ezin dezakegu beste alde batera begiratu! Proposamen bat aurkeztu dugu udalak argi adierazi dezan Palestinako okupazioa eta apartheid amaitu behar direla.

